

Psikoanalisia

Iragan pertsonala interpretatzeko metodoa da psikoanalisia. Introspektzioa lantzen duena. Norberaren historia eta istorioen *kutxa beltza* irekitzeko giltza. Hala diote gehienek Freuden ekarpen famatuari buruz hitz egitean. Garunen pertza surtan jarri eta bertako salda platerera ateratzea da psikoanalisia, hitz lautuan esanda.

Psikoanalisi pixka bat praktika dezagun eskatzen diguzu, Ur. Orrialde publikoak aitorlekutat hartuta, konfesa gaitezen eskatzen diguzu.

Iraganari itsatsita malenkoniatsuki, egunerokotasun kontsumistari atxikirik eta etorkizunaren utopian lozorrotuta ikusten duzu jendea, ikusten gaituzu. Gure burua apalategi hiru hankako horretan zelan egokitzen den jakin nahi duzu.

Voyeur xamar, lagunak biluztu guran zabil-tza. Buruari atzera eragin diot eta zaldi dotorearen gainean ikusi zaitut. Turin-en jantzi berriak hartuta. Bordeletik behera zatoz, Senpereko gaztelua jomugan.

Penitentzia xamurraren peskizan, hasieran bertan aitortuko dizut dena: oraina da erreala den bakarra; ametsa, beste guztia.

* * *

Buruaren zirrikituetan baizik ez du iraganak bizilekua aurkitzen. Inpresioak dira oroitzapena eta gomuta: *dagerrotipoak*. Mundu erreala, argazki-kameratik at dago, eta inpresio bat, isla bat uzten du kanpoalde erreale horrek zilarrezko plakan, argazkiaren oinarri izango den plakan.

Denok, gutako bakoitza nonbaitetik gatzela dioen maxima hori egia da, egia saildua. Ondotxo daki hori baita Freuden sofak berak ere. Baina egia burutua da iragana. Finitua. Buruan baizik ez dago.

Adibidez: “Atzo larrua jo nuen, gaur pozik nago”. Gaurko pozak bizi nau, ez atzoko isurketak. Kausalitate-harremana aurki lezake norbaitek koma eta alboratze linguistiko horretan, ez du zertan. Ez derrigor.



J. I. Basterrretxea

Olasagarre

Apalategi

Etorkizuna bera ere, ametsa baizik ez da. Garunaren ekoizpena da etorkizuna. Ez duzu hura atxikiko. Astoari jarritako azenarioa baita etorkizuna deitzen diogun hori: hurbildu orduko, urrunago dago. Eta, atzemanaz gero, jada ez dago begien aurrean, akabo etorkizuna, oraina bihurtu da kimera berriz ere. Iraultzak, horregatik bihurtzen dira diktadura.

Erloju ero xamar baten menpekoak dira nola iragana ala etorkizuna. Inoiz ez dakizu ordulariari korda emateak zertarako balio behar duen, eguzkiak bere abia baitu, nola zainetako odol gorriak berak ere.

Halere, ez duzu bakerik izango baldin eta saiatzen ez bazara metatzen makinaria suitzar perfektu horren baitan zure indar potentzial osoa: “Astirik ez dut, egin nahi dudan guztia egiteko” –esan ohi dugu, denboraren goma nahi genukeen beste luzatzen ez denean.

* * *

Orainean dago giltza. Nola definitzen dugun hori, nahiz nola adosten dugun. Edo, nahiago bada, orainen definizioak, zeren oraina ez baita bakarra. Nork berea du. Eta denak dira orain.

Kodetze-unean gertatzen direnak hartu ohi dira orainaldikotzat. Inori paradoxikoa iruditzen bazaio ere, oraina ez da sinkronizatu, ez gizakientzat ezta erkidegoentzat ere.

Avant la lettre izaten dira lagun batzuk, letraren aurrekoak, aitzindariak, bidegileak. Itzuli arrunt batetik zatozenez aurkitzen dituzun erromes galgatuak dira beste batzuk, azkenputzak. Baina, denek bizi dute beren uena, kreaioaren lehena balitz bezala.

Tempo da arazoa, denbora barik. Erritmoa. *Ad vivitum* bizi dugulako.

Adokinen aspian, hondartza dago gordeta. Nik ere preziatzen ditut ametsak.

Ireki dezagun ortzien kutxa, iragana, oraina ala etorkizuna... zer dugu Maiatzaren Lehena? ■

Astoari jarritako azenarioa da etorkizuna
deitzen diogun hori: hurbildu orduko,
urrunago dago